

182 positibo berri
10067 positibo guztira* UCln EAEn

1960 hildako EAEn

337 positibo berri
16217 positibo guztira

563 hildako
24 UCln Nafarroan

*HERNANIN 331 (+2), ASTIGARRAGAN 61 (+3)

«Eszenatokian bi emakume bakarrik egotea nahi genuen, gure indarra ikusleei transmititzeko»

Euskaraldia-Euskara ari duren egitasmoaren barruan, bertsolaritza eta dantza lantzen dituen 'Gorria' ikuskizuna izango da gaur Biterin, arratsaldeko 19:00etan. Azken sarrerak eskuragai daude oraindik, Dobera Euskara Elkartearen.

HERNANI KULTURA

Miren Amuriza bertsolaria-
ren eta Askoa Etxebarrieta, *La pulga*, flamenko dantzariaren arteko elkarrizketa artistikoa da *Gorria*, eta gaur egingo dute emanaldia Biterin, arratsaldeko 19:00etan. Kolore gorriaren sinbologia hari hartuta, gatazka askotaz arituko dira ordu eta laurdeneko emanaldian, Aitor Escobar eta Adrian Larrañagaren gitarra eta perkusioarekin lagunduta. Bizitza eta heriotza, arriskuak, debekuak, ideologia, lotsa eta desira izango dituzte hizpide, beste gatazka askoren artean.

Emanaldi berezia izango da gaueko, Amuriza eta Etxebarrieta-
taren. «Ikuskizuna intimista

izatea nahi genuen, eta horregatik gaude Miren eta ni bakarrik eszenatoki gainean». Izan ere, Escobar eta Larrañaga musikariak ez dira oholtza gainean egongo gaur. «Beraien musika jarriko dugu, baina bi emakume bakarrik egotea nahi genuen, gure indarra ikusleei transmititzeko».

«Ez dugu fusio bat izaterik nahi» Amuriza eta Etxebarrieta-
ren asmoa emanaldian ez da fusio bat irudikatzea. Etxebarrieta-
ren esanetan, «bakoitzak bere diziplina-
ren bitartez, egunerokotasuneko gaien inguruan emozioa transmititu nahi diegu ikusleei».

Gainera, munduan pil-pilean dauden gaien inguruan arituko dira emanaldian. «Oso letra potenteak dira, gaur egungo gerta-



Miren Amuriza bertsolaria eta Askoa Etxebarrieta dantzaria, 'Gorria' emanaldian.

kariak aipatu eta gure emozioak adierazten dituztenak: emakumea, errefuxiatuak, pandemia garaia... sentimenduz beteriko emanaldia da», aipatu du *La Pulgak*. Horregatik, *Gorriako* gaiak aldatu egiten dituzte, aktualitatearen arabera.

Sarrerak oraindik eskuragai

Dobera Euskara Elkarteak antolatu du emanaldia, Euskaraldia-Euskara ari duren egitasmoaren barruan. Azken sarrerak eskuragai daude oraindik, Dobera Euskara Elkartearen. Doberako bazkideentzat 8 euroko prezioa

dute, eta gainerakoentzat 10 eurotan daude salgai.

Euskaraldia-Euskara ari duren egitasmoari dagokionean, banakakoen izen-ematea zabalik da jada, eta igandean amaituko da entitateek ariketa sozialean izena emateko epea. **K**

«Haur, gazte eta helduen artean euskal kultura, sormena eta irakurzaletasuna sustatzeko», kromiki lehiaketa

Urriaren 16a da lanak aurkezteko azken eguna. Dobera Euskara Elkartearen fisikoki, ala PDF formatuan digitalki entregatu daitezke.

HERNANI KROMIKI LEHIAKETA

Dobera Euskara Elkarteak Kromiki lehiaketa jarri du martxan, eta urriaren 16a da jatorrizko lanak aurkezteko azken eguna. Helburua «Hernaniko haur, gazte nahiz helduen artean euskal kultura sorkuntza eta irakurzaletasuna sustatzea da», azaldu dute.

Parte-hartzaileak hiru kategoriatan banatuko dira: haurren kromiki saria, 6 eta 11 urte bitartekoentzat; gazteen saria, 12 eta 17 urte bitartekoentzat; eta helduena, 18 urtetik gorakoentzat. Halaber, Hernanirekin zerikusia izan behar du eta ez du beste inon aurkeztua izan behar. Gainera, euskaraz ez dauden lanek ez dute lehiaketan parte hartu-

ko eta beraz, kromikiak euskaraz idatzia izan beharko du.

Urriaren 16a arte dago, lanak aurkezteko aukera

Parte-hartzaileek urriaren 16a dute lanak aurkezteko azken eguna. Euskarri fisikokoan edo digitalean aurkez daitezke, eta bietan pilka-sistema erabiliko da, «lehiaketaren gardentasuna bermatzeko asmotan».

Kromikia euskarri fisikokoan aurkezteko, Doberaren bulegora eraman beharko da, Larrañamendi kaleko 11 zenbakian.

Hala ere, bertara joan aurretik komenigarria da aurretik elkarrekin harremanetan jartzea, hitzordua hartzeko. Era berean, kromikia gutun-azal haundi baten barruan sartuta aurkeztu beharko da, eta pila beste gutun-azal txikiago batean sartu behar da, bertan izen-abizenak, adina, zer kategoriatara aurkeztu den eta harremanetarako datuak idatziko dituzte egileak.

Eta digitalki aurkezteko, kromikia PDF formatuan bidaliko da, dobera@dobera.eus helbide elektronikora. Bi dokumentu

bidali beharko dituzte egile bakoitzak: kromikia eta pilka. Azken hau, datu pertsonalak sortzen dituen beste PDF bat da.

Sari bereziak egongo dira

Kategoria bakoitzeko irabazleak kromiki sorta bat irabaziko du, eta epaimahaia osatzen duten hiru kromikilarien ilustrazio original ba egokituko zaio kategoria bakoitzeko txapelidunari. Ana Almandozena haurrenari, Alai Zubimendirena gazteen kategoriarari, eta Ainara Azpiatzurena, helduen kategoriarari. **K**

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

MENDIKUZE OKINDEGIA, S.L.
Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA
Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

DORRONSORO OKINDEGIA
Ogi egin berria
beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jailegutan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jailegutan: 7:00-14:00

GAUR Ipar-mendebaldeko denboralea izango da; haize oso zakar, euria mardul, giro hotza eta olatu handiak. Euria egingo du, eta ipar-mendebaldeko haizeak bazterrek astinduko ditu. Temperaturak nabarmen egingo du behera. **Min.11° / Max.15°**

BIHAR Udazkeneko giro makalarekin jarraituko dugu. Euria sarri egingo du ipar partean, nahiz eta ostiralean baino gutxiago botako duen. Temperatura apur bat igoko da, baina ala ere giro freskoarekin jarraituko dugu. **Min.10° / Max.17°**

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia Auzo Urtia

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

GIJUKO FORU AHDURIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Helduen taldeko kideak, 'Erritmo naiz' tailerrean.

Musikako tailerrak antolatu dira, ikasturte honetarako

Edukiera mugatuarekin eta astearte goizetan izango dira helduentzako eta umeentzako bi tailerrak, Biterin.

HERNANI MUSIKA

Kaxko Elkarteak bi tailer antolatu ditu ikasturte honetarako. Musika lantegiak izango dira, eta bi adin multzoetara daude bideratuta: 0-3 urteko haurrentzat eta adineko pertsonentzat. Astearte goizetan egingo dira tailerrak, Biteri kultur etxean.

Bi tailer ezberdin

Erritmo naiz du izena helduentzako prestatua dagoen esperientzia tailerrak. «Proiektu honen helburua da adineko pertsonak XXIgarren mendeko musika estiloetara gerturatzea, egungo

musika ezagutzeko eta entzuteko gaitasuna hobetzeko asmoz». Tailer honen funtsa da entzute kontzientea, aktiboa eta kritikoa izatea, oinarriko elementuak identifikatzeko: generoa, erritmoa, instrumentazioa, antolamendua eta obra musikala sortzen laguntzen duen gizarte-testuingurua. Asteartetan izango da egitasmoa, goizeko 11:45etatik 13:00etara bitartean.

0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerrak *Soinu magikoak* du izena. Tailer honen helburua musikako estimulazioa lantzea da, eta haurrek heldu baten laguntza beharko dute egitasmoan parte hartzeko. «Haurren eta guraso edo zaintzaileen artean ezartzen den lotura afektiboa gizabanako ororen bizitzako alderdirik garrantzitsuenetako bat da», azaldu dute. «Etapa honetan jasotzen duten intentsitatea, egonkortasuna, jarraitutasuna eta afektu-kalitatea bizitza osoan zehar ingurune, egoera eta harreman berriak esploratzeko eta ikertzeko prozesua igarotzeko izango duten segurtasunean eta gaitasunean islatuko dira».

Haurren tailer honetarako bi txanda egingo dira: goizeko 10:00etatik 10:45etara bitartean lehena, eta 11:00etatik 11:45etara bitartean bigarrena. Edukiera mugatua denez, gehienez 9 familia onartuko dira talde bakoitzeko.

Izena eman daiteke
Antolatutako bi tailerretan edukiera mugatua da, eta izena emateko epea zabalik dago. Hainbat bide daude inskripzioa egiteko; telefonoz egin daiteke, 608 193 701 zenbakian, emailez donostia@musikanaiz.com helbide elektronikoa edo www.musikanaiz.com webgunean. **K**



Urriza eta Endika, joan den eguneko finalerako material aukeraketan.

Urrizak eta Endikak materiala bereizi zuten, final haundirako

HERNANI ERREMONTEA

Javier Urrizak bere bederatzigarren finala jokatu du larunbatean, eta Endika Urrutiarentzat lehenengo izango da. Hala

ere, aipatu du badakiela zer den finalak jokatzeko, «eta horrek presioa hobeto eramaten laguntzen du». Norgehiagokarako materiala aukeratu zuten joan

den asteazkenean, Galarretako frontoian. Urrizak 3 pilota bereizi zituen, 128 gramoko bi eta 126ko bat. Endikak, ordea, 128 gramoko 3 hautatu zituen.

Bertan behera, pertseidak ikusteko zita

HERNANI CHILLIDA LEKU

Gaur, pertseidak ikusteko ekitaldia zegoen antolatuta Chillida Lekun, baina bertan behera gelditu da, eguraldi txarraren iragarpena dela eta. Jakinarazi dute, Biteri kultur etxean sarrerak erosi zituztenei dirua itzuliko zaiela; horretarako, Biterira bertaratu beharko da, sarreren ordainagiriarekin.

Finalerako sarrerak eskuragai, Kronikan

HERNANI ERREMONTEA

Bihar jokatu da Kutxabank Torneoko final handia, Endika eta Urrizaren artean. 16:30ak aldera hasiko da norgehiagoka, lehenengo partidua amaitu ondoren. Kronikak zenbait sarrera jarri ditu eskuragarri, irakurleentzat. Interesa duenak 943 330 899 deitu, edo Kronikako bulegora bertaratu.

Bertso eskolan izena emateko aukera, gaur

HERNANI BERTSO ESKOLA

Bertso eskolan izena emateko asmoa izanez gero, gaur da presentzialki apuntatzeko eguna. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera bertaratu daiteke Biterira eta izena eman. Beste bi modu ere badaude, hernanibertsoeskola@gmail.com helbide elektronikora idatzi edo 669 068 388 telefonora deituz.

Kontzentrazioa eta afaria, berrikuntza gisa

ASTIGARRAGA PRESOKA

Hilabeteko azken ostirala dela eta, euskal preso eta iheslarien alde kontzentrazioa deitu dute 20:00etan, Joseba Barandiaran plazan. Horrekin batera, dinamika berri bat ere jarri da martxan: elkartasun afariak kontzentrazioen ondoren, Zipotza elkartearen. Interesa dutenek lekua erreserbatu beharko dute, Zipotzan bertan edo astigarragokolagunak@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

Gaztelekua martxan, zenbait aldaketekin

ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Gaztelekuak zerbitzua martxan jarriko du berriro ere, ikasturte honetarako. Hala ere, «itzulera ezberdina» izango dela aipatu dute bertakoek. Izan ere, «koronabirusak kaleko ekintzak lehenestea eskatu du» eta ondorioz, kanpoko ekintzak soilik egingo dira gaztelekuan.

Kontzentrazioa gaur, Gudari Plazan

HERNANI PRESOKA

Hileroko azken ostiralero bezala gaur arratsaldeko 20:00etan kontzentrazioa egingo dute Gudari Plazan, presoen senitarteko eta lagunek.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

XXXV. URTEURRENA

Agustin Irazustabarrena
Urruzola
"Legra"

Nahiz eta denbora iragan
gurekin jarraitzen duzu.

SUHARRI ETA FAMILIA

Astigarragan, 2020ko irailaren 25ean



IRAGARKI MERKEAK

Egurrezko espalderra salgai. Neurriak 2,00 x 2,10 metro. Egoera oso onean.

Deitu: 652 707 215.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**